

# HERENTZIA GENETIKOAREN EREDUA

## Autosomiko dominantea

Familia bateko hainbat belaunalditan daude kaltetuak. Gizonei zein emakumeei berdin eragiten die. Gaixotasuna, oro har, kaltetutakoek bakarrik transmititzen dute. Osasuntsuek, salbuespenak salbuespen, ez dute transmititzen. Haurdunaldi bakoitzean, eritasuna semeari transmititzeko probabilitatea % 50ekoa da. Mutazio horiek aitarengandik edo amarengandik jaso ohi dira, baina, oso noizean behin, paziente batek lehen aldiz mutazio dominantea izan dezake. ("Novo" mutazioa).

### HERENTZIA-PATROI GENETIKOA: AUTOSOMIKO DOMINANTEA

